

Nork Lierni Elortza -Urt 22, 2015

TXOTX GARAIAREN MARKA, BAITA FERIAN ERE

Ahoz aho dabilen kontua da sagardotegiaren irekierarena; aurtengo sagardoa nork probatu duen eta zer moduzkoa datorren. Horren lekuko izan zen atzo Ordiziako azoka ere.

Delikatuzek antolatu ohi duen Hamabi hilabete hamabi produktu ekimenaren barruan, sagardoak hartu du aste honetan protagonismoa. Zeraingo Oiharte sagardotegiko Hariz Egunenek kupel mogikorra jarri zuen udaletxe parean, eta txotxetik probatzera eman zuen aurtengo sagardo berria.

Bide batez, sagarretan erreparatzeko baliatu genuen atzoko postuz postuko itzulua. Uzta ez da orekatua izan nonbait, izan ere, batzuk oso urte ona izan dutela aitortzen zuten bezala, kaxkar antzekoa izan omen da beste batzuen esanetan. Errezila da arrakasta handiena duen sagarra. Neurri eta itxuraren arabera, 1,50 eta 6 euro artean da kiloa salgai; dozenaka saldu ohi duenik ere bada.

Idiazabalgo Kalbarioko Amaia Alkorta, esate baterako, dena saldua zuen, baina aldiz, beste sagar mota asko ditu oraintxe ere aukeran: etxeko sagarra eta fuji izanekoak gozoenak; biziagoak berriz, zabale, neguko gorria, erreineta zuria, grisa... eta otsaila erdira arte behintzat etortzen segitzeko adina genero baduela aitortu zigun.

Sagarraz gain, hemengo fruitu eta fruitu lehorren eskaintza hauek osatzen dute: mizpirak (azkenetan daude jada), kiwiak, intxaurrek eta hurrak.

Arkumearen prezioa

Arkumeari dagokionean, kiloa 3 euroan, eta bizirik pisatua (+%10 BEZa etxeko biltetan). Hori da aurtengo denboraldiaren bukaerara arte finkatua dagoen prezioa; eta prezio hori bera izan zen Ordiziako azokakoa ere. Bide batez, esan, inork mamia egiteko hala nahiko balu, gatzagi naturala eros dezakeela plazan, eta baita ardi esnea ere (litroa 2,40 euroan).

Mikologia atala, garaiak hala aginduta, eskasian dabil. Mendiko angula gutxi batzuk baziren Lasaren postuan (18 euroan kiloa). Eta Santa Maria kaleko izkinan etxera eramane daitekeen autoekoizpenerako 'kita' eros daiteke; hogei bat egunen buruan, Pleurotus ostreatus edo belarri landuak izeneko perretxikoak jateko prest izango ditugu.

- Aste honetako [prezioak](#)



Oiharte sagardotegiko Hariz Eguren, txotxetik sagardoa probatzeko ematen. Argazkia: D'elikatuz.



Sagar mota ezberdinak Idiazabalgo Kalbarioko postuan.



GALDEKETA EGUNEKO OSPAKIZUNAK ZEGAMAN

LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



Gereziak protagonista ekaineko lehen feri ...

Nork Lierni Elortza - Eka 2, 2016

■ Azoka



Piperminekin hasi da piper garaia

Nork Lierni Elortza - maiatza 26, 2016

■ Azoka



Barazki aukera ugaritzen ari da astetik ...

Nork Lierni Elortza - maiatza 19, 2016

■ Azoka

«Filosofia hau jendearen kontsumo ohitur ...

Nork Goierriko Hitza - maiatza 19, 2016

■ Gure Lurra

**LIERNI ELORTZA**

Izena *

Email *

Website

BIDALI IRUZKINA

Goierriko Hedabideak S.L.

Oriamendi 32, 20200 - BEASAIN- Tel.: 943 16 00 56 - Faxe 943 889 612 / Iparragirre, 11 20700 - URRETXU - Tel: 943 72 34 08 - E-posta: goierri@hitza.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia



[Cookie politika](#) | [Lege Oharra](#) | [Pribatutasun Politika](#)



WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

